



ELKARRIZKETA: MAITE ITURBE, ETB-KO PRODUKZIO BATERATZAILEA

# Arrasate

1998ko  
Urriak 30  
426. zenb.



## Eskoletako jangelak

IKUSPEGIA: J.M. VELEZ DE MENDIZABAL • GURE ENPRESAK: MADINA ZURAK  
EUREN IKUSPUNTUTIK: ITXARO ARTOLA • KIROLAK: ZALDIBARKO FUTBITOA



**Oso ondo egin behar dira  
autoak, bost urterako bermea  
eman ahal izateko**

“3+2 Excellent 5 urteko Bermea“ programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



*Gidatu eta gozatu*

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



# Egokitzapen politikoak

**B**idaia berri baten atarian nagoenez gero, hileroko nire idazkia amaitu behar dudalako, urriaren 25eko hauteskundeetarako kanpainaren oihartzunak oraindik bere goi erpina iritsi ez duenean hartu nau. Alde bateko eta besteko mezuak ongi iragazi gabe ditudan arren, gutxi gorabehera badakit nondik doazen, nahikoa aukera izan baitugu azken aste, hilabete eta urteotan ere, alderdi politiko bakoitzaren bertute eta errenkuraz jabetzeko. Hala ere, oraingo hautaketa prozesu honek zalantza eta noraeza piztu bide ditu zenbait taldetan, bizitzaren ari garen itxaropenezko egoera bake-tsua gehienok ustekabean harrapatu baikaitu, eta batzuk zeharo larru gorritan, espero ezin zezaketen (eta agian, nahi ez zuten idatz genezake) egokierari aurre egin behar diotelako.



J. M. Velez de Mendizabal

## “Helburua Euskal Herriaren normalkuntza da”

Giro politikoa, Euskal Herriak azaltzen duen errealtate berri baten arabera mugitu da pasa den hilabete osoan, eta orainsu arte pentsaezinak ziren erabaki batzuk hartu beharrean aurkituko dira alderdi politikoak. 25ean aterako den Eusko Legebiltzarrak aldetaren zentzua argi izan beharko du, horren adierazpena hiritarroi behar bezala helarazi ahal izateko.

Batzuek eta besteek, euren mozorro jantzietan parapetatuta jarraitu ahal izateko beste ezertarako ez bada ere, uneko egokitzapena bilatu beharko dute. Zenbaitzuek traumatikoagoki jasango dute euren “mugimendua”, bat-bateko keinuak jokoaz kanpo utzi baitzituen.

Puntu klabea, euskal gizarteak desiratzen duen bake egonkortasunari erabateko edukin demokratikoa ematen asmatzean datza. Eta, beraz, zailena proiektuaren zuzenketa garbian egongo da, eta —noski— alde guztien lankide-

tza aktiboan. Era guztietako trintxerak baztertuta, egokitzapenik garrantzitsuenak Eusko Legebiltzarraren ahalmenean dago, tradizioz eta ideologiaz inoiz aitzindari, osoa edo partziala, onartu ez dioten sektoreetan konfiantza sorrarazi beharko duelarik. Errealismo zehatz eta ongi kontsideratuarekin aritu beharko da, fenomeno soziopolitiko guztien aurrean egin behar den legez, baina helburu bakar eta inportanteena ahaztu gabe, Euskal Herriaren normalkuntza integralerako urrats positiboak ematea, alegia.

Formula konplikatu samarra dute aukeratu beharko, azken emaitza guztien interesekoa bihurtaraz dezaten. Lortuko al dute? Ez da xede makala eta horretarako beharko lukete denek, baldin eta orain arteko euren aldarrikapenei jaramonik egingo baliete. Nik, badaezpada, interesa idatzi dut, hitza ongi aukeratuz. Izan ere, horixe bera da politika, ezinaren artea, hain zuzen, eta elkar ulertzeko miraririk emango ez denez gero, behintzat, euren interesak salba ditzatela. Baina helburu bakar eta inportanteenaren lehen urrats positibo emanda. ■

*“Erronka berri honen aurrean gure gogoia izango litzateke Eusko Alkartasunarekin harremanak sendotzea eta denbora labur batean posible izatea zerrenda bakarrak ateratzea”*

Rafa Uribarren

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marjo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Kattin Allende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Diseinua:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berri-malea:** Lierni Uribarren. **Bekaduna:** Gontzal Landa. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban Jiel Campo, Ixaro Arriola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztania Sallia, ASA Italde, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagó-aga, Amaia Jauregi-Arriburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maite Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** ISSN: 0214-4654. **Franko kontzertua:** Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Marjo Deogracias.

Arrasateko Udalerri laguntzaia	Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaia	Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaia

# 320

**boto eman ziren Arrasaten posta bidez**

Arrasateko hautesleen %1,5ek postaz eman zuen botoa joan den igandean. Ferixalekuko mahai batean 24 jaso ziren, gehienak Iturbide Egoitzekoak. Gutxien, berriz, Erguingo mahai batean batu ziren: bat. Erretiratuak izaten omen dira posta bidezko botoa gehien erabiltzen dutenak.

## ITURRI ONETIK

### EA eta EAJ batera Arrasaten?

Urte gutxian Eusko Alkartasuna Arrasateko hirugarren indarra izatetik bosgarrena izatera pasatu da. Partidu Popularrak ere gaitetik du orain. Eusko Alderdi Jeltzalea, berriz, botoak irabazi bai, baina portzentaiaetan jaitxi egin da apur bat.

Bateko eta besteko zenbait militante hasi dira hitz egiten alderdi biak batu beharraz. Alderdi bien soziologia berdina omen da, helburuetan ez bide dago alde nabarmenik, Eusko Jaurlaritzan eta Arrasateko Udalean gobernukide dira... Zerk eragozten du, bada, batasuna? Hor dago koska.

Gaur egun ez dute posible ikusten alderdi bien egiturak batzea. Errazagoa iruditzen zaie udal hauteskundeetarako zerrenda bateratuak egitea. Bai ote?

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 30**  
 • Egunez eta gauzez: Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 31**  
 • Egunez eta gauzez: Español, Iturriotz
- Igandea, 1**  
 • Egunez eta gauzez: Korkuera, Musakola
- Astelehena, 2**  
 • Egunez eta gauzez: Irizar, Erguin
- Ateartea, 3**  
 • Egunez eta gauzez: Amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 4**  
 • Egunez eta gauzez: Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 5**  
 • Egunez eta gauzez: Ruiz, Maala

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
 Iguatorialdea 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00  
 (emakumeak) 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) 943 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
 • Espezialitateak 943 77 05 78  
 943 77 12 64  
 Oñati 943 78 08 52  
 Eskoriatza 943 79 98 58  
 Aretxabaleta 943 79 74 58  
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati 943 78 04 11  
 Bergara 943 76 14 69  
 Arrasate 943 79 14 39  
 Aretxabaleta 943 79 10 52  
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62  
 Gasa 900 40 05 23  
 943 79 78 44  
 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak 943 79 12 22  
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

## ARROPA BILKETA

**G**uraso agurgarriak. Aurreten ere zuekin jarriko gara harremanetan ikasturte honen hasieran, joan den ikasturteko balantzea aurkezteko eta Boli Kostako Bouak-eko Camp-Penal-etik iritsi zaigun eskaera zuei zabaltzeko.

Camp-Penalen 1.000 preso baino gehiago bizi dira eta Sersok urte batzuk daramatza lanean hangoekin.

Praha luzeak, motzak, alkandorak eta elastikoak eskatzen dizkigute. Ez dute jertse edo berokirik behar, han temperatura ez baita 23°tik jaisten.

Erabili behar ez duzen arropa egoera onean baduzue, San Viator Ikastolan jasoko genuke, urriaren 26tik 30era bitartean. Ikasleek beren ikasgeletara ekar dezakete.

Berandutxoago emango dizuegu ikasturte honetan zehar antolatuko ditugun jardueren berri.

Adeitasunez eta aurretik eskerrak emanez

*Tomas Aranberri*


## Okerrak zuzentzen

Arrasate Pressen 424. zenbakian okerreko argazkia jarri genuen "Sindikatu Berria" izena zuen albiste-an. Han agertzen ziren bi kide gaur egungo ESK sindikatuan badabilta ere, beste biak ez ziren erakunde horretakoak.

## Bekadunak

Hiru bekadun hartu ditugu Arkon. Anartz Agirre bergararra, Gontzal Landa mondragoetarra eta Zigor Txurruka mendarotarra. Hirurak kazetaritza ikasten ari dira EHUn. Ikasturtean zehar hemen egingo dute praktikaldia, egunero egun erdiz.

Gontzal Landa, gainera, asteburuetako kazetaria izango dugu hemendik aurrera. Denoi gure ongi etorrikeri beroena.



Anartz Agirre



Gontzal Landa



Zigor Txintxurreta

**M**  
**MEMESA**  
 Industria hornidurak  
 Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
 jatetxea  
 Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

# Zer gobernu eratuko da Gasteizen?

Boto gehien jaso dituen EAJk du gobernu berria eratzekeo ardura



**Irene Etxeberria**  
(53 urte)  
Etxekoandrea

Bada, ez dakit. Ez dut gai horri buruz asko ulertzen, eta ez dakit.



**Arrate Manzidor**  
(37 urte)  
Umezaina eta ikaslea

Buf, ez dakit. Ez dut pentsatu ere egin. Ez dut pentsatzeko astirik, lan handia dut.




**Israel Gimeno**  
(22 urte)  
Enpresarioa

Politikari buruz oso gutxi ulertzen dut. Ez dut ideiarik ere zein gobernu aterako den.



**Rafael Gutierrez**  
(46 urte)  
Langilea

Bidaia batetik heldu berri naiz eta oraindik erdi galduta nabil. Bartzelonakoa naiz, baina uste dut EAJ eta EHk eratutako gobernu sortuko dela.




**Sabin Bolinaga**  
(75 urte)  
Erretiratua

Nik uste dut EAJ lehenengo HBrekin elkartuko dela. Gobernu euskalduna komeni zaigu.



**Justa Madinabeitia**  
(74 urte)  
Erretiratua

Zero. Ez dut ideiarik ere. Ez dut ulertzen tutik ere ez.



**Isabel Madinabeitia**  
(65 urte)  
Erretiratua

Gobernu zeinek egingo duenez dakit. Tutik ere ez dakit horri buruz.



**Eloi Martetxe Azkoaga**  
(49 urte)  
Tabernaria

Seguruena EA eta EAJren arteko gobernu izango da. Nahiz eta gutxiengo izan, logikoena hori litzateke, nire ustez.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiraletan Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

Ondo ibili nahi al duzu?  
Zuri laguntzeko gaude.

- lanerako eskalapoiak (zuekoak)
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketarako plantilla bereziak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

# Arrasate

## LANAK

### OTALORAN

Pilotalekuaren inguruan kamioiak arituko dira.

### URIBARRIN

Uriburu kalean eskaierak egiten ari dira.

### KONTZEZIÑO KALEAN


Lanean jarraitzen dute.

### KATAIDEN

Telefonikaren lanek arazoak eragingo dituzte.

### GAZTELUONDON

Horma bat botatzeko lanak hasiko dira.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 30**



**LARUNBATA 31**



**IGANDEA 1**

Eguna lainotuta agertuko den arren, arratsalde parterako argiune batzuk agertuko dira.

Orokorrean laino gutxi egongo dira. Goizaldean behelainoa izango da nagusi.

Zerua ez da oso lainoturik egongo. Temperatura ez da aldatuko eta hai-zeak hegomendebaldetik joko du.

## Ilargia



**ilbete**

Azaroaren 4an, Xarles, Karlos, Borromeo eta Amantzio egunean, ilbete izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)


### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

## Urkuluko uraren maila

**%92,5**



## Distantziak

Arrasate	
121	Baiona
690	579 Bartzelona
57	170 620 Bilbo
1.155	1.038 2.883 1.207 Brusela
72	50 529 119 1.088 Donostia
40	180 530 66 1.204 118 Gasteiz
107	120 437 159 1.180 92 93 Iruñea
391	519 621 395 1.554 469 351 407 Madril
864	743 1.113 911 296 792 910 884 1.260 Paris

konstansstos



UNITED COLORS  
OF BENETTON.

# 30 ostirala

■ ZINEA

*Los Visitantes regresan por el túnel del tiempo*, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ PIANO EMANALDIA

Juan Luis pianojole mondragoetarrak piano emanaldia eskainiko du Mondragon Hotelean. Mikrofonoan bere alaba Bego arituko da. Saioa gaueko 23:00etan hasiko da, hoteleko Cafe-Pianoan.

■ GITARRA HEAVYA

Alberto Aguskiza gitarrajoleak kontzertua eskainiko du Iluntz tabernan. Doinu heavyak entzuteko parada izango da, beraz, iluntze aldera.

herriko plazan produktu dastaketa, musika, dantza eta ondo pasatzeko ekitaldi ugari egongo dira, dena Andaluzian girotua.

■ BERTSO JAIALDIA

Hiruatz elkarte atxabaldarrak antolatutako bertso jaialdia izango da Zاراia zineman, gaueko 22:00etan. Hantxe arituko dira Xabier Eguzkitze, Jon Iturriaga, Imanol Lazkano eta Andoni Egaña. Gai jartzailea Jon Sarasua izango da.

■ PIANO EMANALDIA

Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan piano emanaldia eskainiko du Juan Luis pianojole mondragoetarrak. Saioa gaueko 23:00etan hasiko da eta 01:00a arte arituko da hantxe, bere alabak ahotsean lagunduta.

■ TECHNO JAIA

Branca tabernan Techno-electro-house... musika saio alternatiboa egingo da, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Saioaren arduradunak Kaiet, Tito eta Estebe izango dira.

■ KONZERTUA  
GAZTETXEAN

Alberto Eguskiza gitarrajoleak beste emanaldi bat eskainiko du, oraingoan Gaztetxean. Saioa gaueko 22:00etan hasiko da.

■ KANPALDI EKOLOGIKOA

Karakate eta Atxolin bitartean egingo da kanpaldia, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Igotzeko arratsaldeko 15:00etan aterako dira Azkoitia, Elgoibar eta Sorluzeko plazetatik. Kanpaldia talde ekologistek antolatu dute, zentral eolikoan aurka.

■ SARI BANAKETA

Bidaiari Handien Literatura Lehiaketako sariak banatuko dira Aramaioko udal-txean. Estraineko edizio honek hainbat sortzaile ezagunen arreta erakartzea erabaki du. Aramaioko Sagitario Sariaren bidez, bidaia literatura zabaldu nahi izan da.

Ekitaldia eguerdiko 13:00ean izango da.

■ MENDI IBIALDI  
EKOLOGISTA

Irukerutzeta-Karakate mendietara ibialdia antolatu dute zentral eolikoan aurka. Irteera 09:00etan izango da Azkoitia, Elgoibar eta Sorluzeko plazetatik. Elkartzea 12:00etan izango da, Karakate eta Atxolin bitarteko zelaian. Salda, hitzaldiak eta bestelakoak izango dira.

# 1 igandea

■ ZINEA

*Blade*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ AITOR ARANARI  
OMENALDIA

Tellamendi mendia hautatu dute Aitor Aranaren guraso eta lagunek haren errautsak zabaltzeko. Ekitaldia eguerdiko 12:00etan izango da. Familiak eta lagunek parte hartzeko deia egin dute.

■ PIANO EMANALDIA

Juan Luis pianojoleak musika emanaldia eskainiko du Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan. Saioa arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da.

# 2 astelehena

■ ZINEA

*Blade*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

# 31 larunbata

■ ZINEA

*Blade*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ JAIALDI  
ANDALUZIARRA

Al Andalus kultura elkar-teak jaialdi andaluziarra antolatu du. Urriko jaialdia Eskoriatzan izango da eta eguerdiko 12:30etan hasiko da, Rocioko mezarekin. Ondoren, eta egun osoan zehar,

Igandean, azaroak 1, Domu Santu eguna izango da. San Kristobaleko hilerria goizeko 09:00etan irekiko da eta egun osoan zehar egongo da zabalik. Arrasatsaldean 19:00ak aldera itxiko da.





# 3 asteartea

## ■ ZINEA

*Blade*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

# 4 asteazkena

## ■ MALABARRAK GAZTETXEAN

Gaztetxeak malabar ikastaroa antolatu du. Interesatuak Gaztetxera jo asteazkenetan 19:00etatik aurrera.

# 5 osteguna

## ■ MUSIKA EMANALDIA

Juan Luis pianojole mondragoetarrak piano saioa eskainiko du Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan. Saioa arratsaldeko 19:00etan hasi eta 21:00ak arte luzatuko da.

## ■ ALFABETATZE IKASTAROA

Arrasateko AEK-Erdueuskaltegiak alfabetatze ikastaroak antolatu ditu. Eskolak astelehenetik ostegunera bitartean izango dira, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara. Izena emateko, deitu 943 77 03 69 zenbakira edo euskaltegira jo.

## ■ TRIKITIXA IKASTAROA

Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeak fandango eta arin-arin ikastaroa eskainiko du larunbatero, 11:00etatik 12:30etara. Ikastaroa bereziki jende helduari zuzendua izango da. Hilekoa 2.000 pta. kostako da. Interesatuak Bergarako Moises Azpiazu dantza taldearekin harremanetan jar daitezke, 943 76 15 40 zenbakian.

## ■ AEK EGUNA

Azaroaren 8an, igandean, AEK eguna ospatuko da Legution. Arrasateko AEK-Erdueuskaltegiak autobusak antolatu ditu. Izen-ematea azaroaren 5ean amaituko da. Interesatuak AEKren egoitzara joan daitezke. Autobusak goizeko 10:30etan aterako dira eta 1.000 pta. kostako da.

## ■ POESIA EMANALDIA Emakumeen

Asanbladak poesia emanaldia antolatu du "Palabra de mujer" izenburupean. Emanaldia azaroaren 6an, ostirala, izango da Monterronen, ilunzako 20:00etatik aurrera. Behin ekitaldia hasi eta gero ez da aretoan sartzetik izango. Hori dela eta, puntualtasuna ezinbestekoa izango da emanaldia entzun nahi

duenarentzat. Horrez gain, azaroaren 11n, "Luchas revolucionarias en Centroamérica. y Después... ¿Las mujeres qué?" hitzaldia antolatu dute. Hitzaldia Clara Murgialdaik eskainiko du.

## ■ TAILU IKASTAROA

Arrasateko Tailaginen Elkarteak goi mailako tailu ikastaroa antolatu du. Izena emateko deitu gualdera telefono hauetara: 943 79 77 57 (Joxe Mari) edo 943 79 67 64 (imanol).

## ■ EGINGO DUGU

Egingo Dugu elkargoaren bulegoak irekita segitzen du, Arrano elkartean. Astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 18:00etatik 19:30etara dago zabalik.

## ■ LARUNBLAI TXATXILIPURDIREKIN

Larunblai, Txatxilipurdik larunbatetarako antolatzen dituen ekintzak abian dira dagoeneko. Urrian eta azaroan zehar haur eta lehen hezkuntza zikloetako

neska-mutilek hainbat aukera izango dituzte. Interesatuak Txatxilipurdira joan daitezke lehenbailehen edo 943 79 54 46 zenbakira deitu. Gogoratu, bestalde, ludoteka ere zabalik dagoela eta izena emateko 4.500 pta.ko bazkide ordainsaria ordaindu behar dela. Ludoteka haur eta lehen hezkuntzako neska-mutikoentzat da. Astelehenetik ostiralera bitartean dago zabalik, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Larunbatetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara.

## ■ EHIZATZEKO ZOZKETA

Leintze Elkarteak asteazkenetan egingo ditu ehiza postuen zozketa, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Zozketan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da. Ehiza Federakundearen uso pasen txartela izatea.

## GAZTE ERAGILE LANPOSTUA

Egun erdiko kontratua.  
Baloratuko dena:

- Gazteekin esperientzia
- Begirale, gazte eragile edo antzeko titulazioa.
- Euskarā maila

Curriculumak jasotzeko epea:

Azaroaren 6a arte Txatxilipurdiren bulegoetan

**Pablo Uranga, 6 Tel.: 943 79 54 46**  
**ARRASATE**



USTEAK USTE

PPrèn botoak

**H**auteskunde gaueko lana bukatu eta gero, hurrupa bat egitera joan ginen. Tabernan lagun batzuk ziren eta, agurren ostean, emaitzei buruz hasi ginen hizketan. Halako batean, PPK Arrasaten 1.819 boto atera zituela esan genuen. "Nun jasak, baina?", galdetu zigun batek.

Boto horiek Francoren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoak egin zirenetik ditugu Arrasaten. Suarezen garaian UCDri ematen zioten botoa, espainoltasunaren bermatzaile nagusia zelakoan. PSOE iritsi zenean Madrillgo gobernura boto horiek guztiak sozialisten zorrora joan ziren. 1996ko hauteskundeetan PSOEk joan den igandean baino 1.059 boto gehiago eskuratu zituen. Boto horietako asko —ia 900— PPra joan dira orain, etorkin horiek PP ikusten baitute gaur egun espainoltasunaren defendatzaile sutsuena.

Hautesle horiek lasai daudenean abstenitu egiten dira askotan. Beldur direnean, ordea, tropelka irteten dira botoa ematera.

Joxe Aranzabal



Zer dela eta mugarriz mugarri Arrasaten?

Itxaro Artola\*

**G**auza entzuna da, zer garen ulertu ahal izateko nondik gatozen jakin beharra dagoela. Bizitzarako oinarritzko abiapuntu horri zera gehi dakioke: "... eta nondik gatozen jakiteko ez dagoela gure aiton-amonek erabilitako bideei jarraitzea bezalakorik". Izan ere, *karretera nazional*-en, autobideen eta enparauen aurretik, hamaika auzobidek lotzen zituzten eskualdeko herriak eta herriko gunek. Honez gero, garapena delakoaren izenean kasik desagertu diren arren, geratzen dira oraindik ere aspaldiko Arrasateren lekuko izan ziren kamino, zubi, baserri, bidegurutze edo baselizen arrasto eta toponimiak. Honela, bada, herriko mugetatik irten barik, eta mendiaz gozatzeko ohitura sana bultzatzeaz batera, gure historian atzera egin eta erdi izkurtuan dagoen kultura ondare hori kaleratu guran antolatatu dugu "Mugarriz mugarri...

Arrasate ezagutzen" irteera sorta. Aurrenekoa domekan egin zen. Zirimiri gogaikaria eta hego-mendebaldeko haize zakarra lagun zituztela, hogei bat ausart abiatu ziren Kataidetik gora Mugarriraino eramango zituen bidetik. Ibilbidetan zehar Etxezarretako landareta aberatsa, Oñatiko lurrak marrazten dituzten antzinako mugarriak, huntzorriz estalita dagoen *Zubibarri* eta XVI. mendean Gaztelatik Frantziara joateko eraiki zen erregebidetako iragan zituzten, besteak beste. Eskerrak, Bakueko txabo-

lakoek euritik babestuta atsedeen hartzeko aterpea eta baita indarberritzeko mokaua ere eman zieten!

Jada Bedoñako lurretan, inguruko lehen parrokia izan ei zen Andra Mari Zuri baserriko ermita zoragarria barrutik erakutsi zieten bertakoek eta Errekabarrenetako ur bazterrean uretsa "dastatzeko" aukera ere ez zuten galdu batzuek. Hemendik, Bedoñako auzunean sartu, "Loramendi" olerkariaren jaiolekua izan zen Mendibitsu baserria ikusi eta etxerako bidea hartu zuten, mela-mela eginda, baina jasotako historia lezioz azpozik.

Hurrengo txangoa datorren domekan, azaroaren 8an izango da. Mugarrin hasi eta Garagartzara heldu bitartean, Muru, Gesalibar eta Besaideri lotutako hamaika kontu eta kondaira ekarriko dira gogora Hirugarren eta azken irteera, ostera, azaroaren 22an gauzatu da eta Udala auzoan elkartu ondoren, Besaide, Udaltx, Kanpanzar eta Epele izango dira mugarri eta mintzagai.

Jakin, bestalde, mendian ibiltzeko ohiturarik ez duzuenok behinik behin, autobusa jarriko dela irteera gunetara hurbildu eta amaieran etxera itzultzeko, baina aurrez AEDn izena eman eta txartela jaso beharra dagoela. Egun bietan, goizeko 08:00etan izango da hitzordua, Garibaiko autobus-geltokian. Animo, bada!

\* AEDko teknikaria

“Oraindik geratzen dira aspaldiko Arrasateren lekuko diren arrasto eta toponimiak”

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**“PAL”**  
burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Pedro Guridi eta Josu Arkauz**

Joan den ostiraletik Pedro Guridi Langraitzeko espetxean dago. Iragarri eta bi astebete beranduago heldu zen Arabako presondegira. Bidaia luzea egin zuen, Granadatik Langraitzera, Murztzia, Valentzia eta Zaragozan barrena. Oraindik ez du medikurik bisitatu, baina gurasoek diotenez, animoso dago. Bestalde, Josu Arkauz Arana arrasatearra ere espetxez aldatu zuten joan den larunbatean. Soto del Realetik, Alcalá Mecorra eraman zuten.

■ **Lanuztea Umezaintzan**

Gipuzkoako Haurtzaindegien Koordinakundeak deituta, lanuztea egin zuten pasa den ostiraldean Umezaintzan. Goizean, gainera, kale agerraldia egin zuten Donostian. Izan ere, 1991.

urtean LOGSE legea indarrean sartu zenetik, ordua arte Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen zizkien diru laguntzak murriztu egin zaizkie orain, haur eskolak Eusko Jaurlaritzaren esku-duntza diren aitzakiarekin.

■ **Txatxilipurdi lan eta lan**

Aurtengo ikasturtean ludotekan matrikulatzeko epea zabaldu du Txatxilipurdik. Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat zabalik dago. Izena eman nahi duena Sebero Altubera joan beharko da, astelehenetik ostiralera bitartean, 17:00etatik 20:00etara. Matrikulazioak 4.500 pezetan balio du. Bestalde, Txatxilipurdik larunbatetarako antolatzen duen Larunblai abian dago pasa den asteburutik. Urrian eta azaroan zehar, haurrek larunbatetan

ondo pasatzeko hainbat aukera izango dituzte.

■ **Joseba Garita eta Angel Iturbe**

Joan den asteko igandetik Angel Iturbe arrasatearra desagertuta dago Santo Domingoko etxetik. Bera eta Belen Gonzalez Peñalba hondartzara zihoazela azaltzen zuen ohar bat da oraingoz dagoen aztarna bakarra, izan ere, desagertu zirenetik ez da bestelako berririk izan. Joseba Garita preso mondragoetarra, bestalde, pasa den ostegunean epaitu zuten Madrilgo Auzitegi Gorenengan, nahiz eta bezperan epaiketa hau bertan behera gelditu zen abixua jaso zuten senitartekoei. Epaia, datorren astean jakinaraziko da. Joseba Garitak urtebete inguru darama Carabanchelgo espetxean, Mexikotik atera eta gero.



**DONOSTIAKO ORFEOIA**

Larunbat arratsaldean, Donostiako Orfeoia San Joan Bataiatzailearen parrokiari izan zen musika emanaldia eskaintzen. Aita Menni ospitalak bere mendeurrena ospatzeko ekitaldiei amaiera eman zien kontzertu honek. Parrokia zaharberritu zenetik egin den lehenengo kontzertua izan zen. Jose Antonio Sainz Alfarok gidatuta, Maurice Durufferen lanak abestu zituen orfeoia, parrokia beterik zegoela.

“ Emakumez osatutako kooperatiba gizonen osatutako edozein enpresa bezala kudeatzen da. Ez dut uste ezer berezirik dagoenik emakume langilea eta gizon langilea bereizten dituenik. (...) Auzo Lagunen lau negozio unitate ditugu: talde handientzako sukaldaritza, plater sukaldatuak, eraikuntzen eta tokien garbiketa eta osasun zerbitzu erabatekoa. Euskal Herrian egiten dugu lan eta orain dugun erroka da estatuaren beste toki batzuetara zabaltzea. Valentziako Kooperatiba Taldearekin eta Comismarrekin batera Comislagun S.L. enpresa sortu dugu, gure jardura Valentzian zabaltzeko. Estatuaren gainerako tokietara zabaltzeko Geslagun S.L. sortu dugu”.

**MANUEL GINER**  
TU-Lankide, 1998ko irailean

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

*Independentzia eta askatasuna!!*



**HAUTESKUNDEAK**

**ATBko mahai ingurua**

Lau lagunek hartu zuten ATBk joan den asteeko asteazkenean eratu zuen mahai inguruan: Luis Alberto Aranberri *Ama-tiño* (EAJ), Iñaki Galdos (EA), Antton Karrera (EB) eta Xabier Zubizarreta (EH). Maite Pagazaurtundua (PSE-EE) etortzekoa zen, baina azkenean ez zen agertu. Azaldu ziren lauek Lizarrako hitzarmena sinatua zuten, eztabaida nahiko erraz joan zen.

**Antton Karrera**

Ezker Batuko hautagaiak ez du lortu parlamentario izatea oraingo honetan. Antton Arrasaten ibili zen lanean urtebetez, Lana nekazaritza kooperatiban. Aspaldiko kontuak dira hauek. Berak, ordea, ondo gogoratzen ditu. Joan den asteazkenean ATBren mahai inguruan izan zen eta hantxe eman jakinarazi zuen Arrasaterekin duen lotura. Antton Karrera Amezketan jaio zen eta Burgozko epaiketa famatuan epaitu zuten, Mario Onaindia eta beste askorekin batera.

**Anguita Elorrion**

Zenbait komunikabidek Ger-nika aldeko baserri batean zegoela esan bazuten ere, Iuko idazkari nagusiak Axpeko baserri batean igaro zituen kanpaina egunak. Hiru egunean zehar Elorrioko Katxarro sagardotegian izan zen bazkaltzen. Hango langileek esan zuten, Anguita oso gizon atsegin eta maitagarria da.

**Rafa Uribarren legebiltzarkide mondragoetarra**

Arrasatek zazpi hautagai—eta ez sei guk orain bi aste esan genuen bezala— izan zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Horietatik bat bakarrik irten da aukeratua: Rafa Uribarren, guk aurrekoan aipatu ez genuena, hain zuzen. Blanca Roncal justu geratu da kalean, bosgarrena baitzen. Xabier Zubizarretari ere bi jarleku gehiago irabaztea falta izan zaio. Besteak urruti ibili dira.



Rafa Uribarren.

**RAFA URIBARREN**

Baina nor da Rafa Uribarren Axpe? Seigarren zihoan EAJren Gipuzkoako zerrendan eta bere alderdiak sei atera dituzenez, bingo!

Gaske askok ez dute ezagutuko, orain hogeitatu urte irten baitzen Arrasatetik. Rafa Arrasaten jaio zen eta San Viatorren ikasi eta gero, Zaragozara joan zen albaitaritzak ikasketak egitera.

Ikasketak amaitu ostean, Tolosa aldera joan zen, albaitari gisa lan egitera. Gaur egun Anoetan bizi da, Abraham Olano txirrindulariaren jaioterrian. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Gipuzkoako Albaitarien Elkarteko lehendakaria izan zen. Zazpi urte darama, gainera, Anoetako zinegotzi moduan. Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskunde-

etan zazpigarren aurkeztu zen Eusko Alderdi Jeltzalearekin. Handik urtebetera, beste alderdikide baten hutsunea betetzeko, legebiltzarkide bihurtu zen. Hiru urte egin ditu, beraz, Eusko Legebiltzarrean, batez ere nekazaritza, arrantzaz, ingurugiroa eta osasun kontuetan lanean.

Noiz edo behin etortzen da Arrasatera eta oraindik ere badu harremanik bere aspaldiko lagunekin. Orain parlamentario izango da beste lau urterako. Itxaropentsu begiratzeko dio etorkizunari eta mezu garbi bat eman zigun: "Erronka berri honen aurrean, gure gogoia izango litzateke Eusko Alkartasunarekin harremanak sendotzea eta denbora labur batean posible izatea zerrenda bakarrak ateratzea".

Anoetan utzi genuen Rafa Uribarren, Abraham Olanoren herrikideekin. Ilusioz beterik.



**Hamarretako goxoa jaten**

*Lurdes Arregi hogeitatu bat aldiz egona da hautesmahaietan, eta bere borondatez gainera. Hamarrak aldean Txispasek ekarritako otartekoa goxo asko jan zuen, ardoa ere lagun zuela. Nik ere igaroko nuke egun osoa hautesmahairen batean, horrela zainduko banindute!*

## Plazerra eta betebeharra

Gorka Gorosabel eta Markel Madinabeitia goizean goiz jaiki eta tinko zeuden hauteskontzi aurrean guk harrapatu genituenean. Errealaren partida zela eta, egun osoa kanpoan igaro behar zutez, alde egin aurretik botoa ematera joatea erabaki zuten.

## Politikariak ATBn

Hauteskunde kanpaina garaian ohi denez, politikariak mahai inguruetara joaten dira bakoitzak bere programa besteen aurrean defendatzera. ATBn ere ezin gutxiago izan eta hementxe izan genituen Iñaki Galdos (EA), Luis Alberto Aranberri *Amatiño* (EAJ), Xabier Zubizarreta (EH) eta Antton Karrera (EB).

## Asteleheneko orria

Astelehen goizeko 06:30etarako Arrasateko kioskoetan zegoen hauteskunde biharamoneko *Arrasate Press* berezia, herrian izan ziren emaitza guztiekin, 4.000 ale banatu ziren doan kioskoetan, Fagor eta Euskadiko Kutxako jantokietan, Eroskin, Super BMn, Eskualde Ospitalean eta Anbulatorioan, zenbait okindegitan... Arrasateko tokirik garrantzitsuenetan. Jendeak gustura hartu zuen orria.

## Hauteskunde gaua ATBn

ATBk saio berezia eskaini zuen gaueko 22:00etan, Mikel Irizarrek aurkeztua. Gaueko 23:30ak arte iraun zuen. Arrasateri buruzko datuak oso osorik eskaini zituen lehen komunikabidea izan zen. Gainera, ordenadore berriarekin egindako grafikoak eskaini zituen, argi eta dotore. Arrasatear askok jarraitu zuten programa.



## Euskararen erabilera kanpainan zehar

AED elkarteak neurtu egin du Arrasateko alderdi politikoek zenbateraino erabili zuten euskara publizitatean eta ekitaldi politikoetan.

### POSTA PROPAGANDA

Lehenbizi etxetara bidali ziren publizitate orrietan zenbat euskara erabili zen neurtu du AEDk. Atal honetan EH izan zen euskara gehien erabili zuen alderdia: %75. Ondoren EA, EB, EAJ eta PP zetozen, %50ekin. Azkenik, euskara gutxien erabili izan zuena PSE-EE izan zen: %10

### PUBLIZITATEA

Hiru hedabide aztertu zituen AEDk: *Arrasate Press*, ATB eta *Extra*. Euskaraz egin zuten beti EA, EB, EH eta EAJ alderdiek. Dena gaztelaniaz, berriz, Partidu Sozialistak eta PPK.

### EKITALDI POLITIKOAK

Popularrek eta sozialistek ez zuten ekitaldi politikorik egin Arrasaten. Beraz, ez dira atal honetan sartzen. Egin zutenen artean Euskal Herritarrok izan zen euskara gehien erabili zuena: %85. Ondoren EA, %51,35; Eus-

ko Alderdi Jeltzalea %29; eta Ezker Batua %18,5.

Kaleko propagandari dagokionez, ez da neurtu portzentaietan zenbat euskara erabili den hormirudietan eta megafonian.

Ez dago alderatzerik emaitza hauek aurretik egindako azterketekin, oraingo honetan AEDk aldatu egin dituelako zenbait gaua.

Orain arte udal hauteskundeetan bakarrik egiten zen era honetako neurketa. Hemendik aurrera, berriz, kanpaina guztietan egingo da, AEDren esanetan.



### Jaiotzak

- Unai Agirre Uribarren. Urriaren 12an.
- Josune Vicente Sánchez Urriaren 13an.
- Miren Amozarrain Altube Urriaren 14an.

### Ezkontzak

- Pedro Jesus Romero Gómez eta Ana María Gil Tabares. Zibilez. Urriaren 10ean.
- Jose María Gorroñogoitia Iturbe eta María Raquel Marradán Urquiola. Zibilez. Urriaren 10ean.
- Francisco Javier Sánchez Pérez eta Miren Edurne Alonso Goro-sabel. Elizaz. Urriaren 17an.
- Juan Ramón Díaz Uribide eta Ane Miren Arambarri Bengoa. Zibilez. Urriaren 17an.
- Juan Cruz Dávila Alegre eta María Begoña González Otxandiano. Elizaz. Urriaren 24an.

### Heriotzak

- Juan Romero Carmona. 55 urte. Urriaren 17an.
- Honorata González González. 81 urte. Urriaren 17an.
- Beatriz Vieco Delicado. 83 urte. Urriaren 18an.
- Eloy Marteache Ruiz. 84 urte. Urriaren 20an.

## Udala Untzilaren kontra

Arrasateko Udalak auzitara eramango du Untzilla eraikuntza enpresa, ustez 13,5 milioi pezetako iruzurra egiteagatik. Untzilla Elkarte Mugatuak, 1997. urtean Erdiko kaleko eraikuntza bat erosi zuen enkante publiko baten bidez. Baina, Udaleko langile bat bankura taloia kobratza joan zenean, fondorik gabekoa zela jakinarazi zioten.

Mondragoeko Udalak epaiketa irabazi eta Untzilla Elkarte Mugatuak zor dion dirua berreskuratuz gero, enkante edo subasta publiko berria egingo litzateke, Erdiko kaleko eraikuntza saltzeko.

# Arrasateko eta Bergarako udalak auzitara joango dira botikarioen kontra



Botikarioak ez daude ados Osakidetzarekin eta auzitara eraman dute hau.

Arrasateko Udalak Gipuzkoako Botikarioen Elkargo Ofizialaren kontra egingo du auzitegian, botikarioek lehengo goardia sistemara itzuli nahi dutelako. Ez da bakarrik izango, ordea. Bergarako Udala ere lagun izango du horretan, eta baita Eusko Jaurlaritzako Osakidetzarekin ere.

Martxoan Eusko Jaurlaritzak debekatu egin zien Bergarako eta Arrasateko botikarioei goardiako farmaziak txandaka egitea herri bieta-ko botikarioen artean. Hori dela eta, joan den 16tik aurrera, herri bakoitzeko botikarioak hasi ziren goardiako farmaziak bakoitzak bere herrian egiten.

Botikarioak, baina, ez dautu pozik Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin eta Euskal Herriko Epaitegi Gorenera jo dute. Auzitegian Eusko Jaurlaritza eta Bergarako eta Arrasateko udalak izango dituzte aurrez-aurre. Hauek ez dautu ados Gipuzkoako botika-

rioen proposamenarekin.

Errekurtsoaren berri jakin bezain laster, Arrasateko eta Bergarako udalak ados jarri ziren Osakidetzaren alde eta botikarioen kontra egiteko. Epaiketaren kostoak erdibana ordainduko dituzte eta abokatuak ere berberak eramango dituzte. Luis Urkiza eta Juan Landa dira udal biak defendatuko dituzten abokatuak.

Bergarako eta Arrasateko botikarioek alde batera utzi

dute garai batean buruan erabili zuten asmoa Arrasaten goardiak egiteko zerbitzu zentralizatu bat egiteko. Orain eskatzen dutena da lehengo egoerara itzultzea, alegia, goardiako farmaziak bi astez behin txandatzea, Bergaran batean eta Arrasaten bestean.

Lehendabizi alkateak hartu zuen Bergarako Udalarekin batera joateko erabakia, baina asteleheneko osoko bilkuran, udalbatzak ere berretsi egin zuen erabaki hori.

## Ikerlanen Energia Saila Miñan

Urriaren hasieratik Arrasateko Ikerlan enpresaren Energia Saila Miñanoko teknologia parketan dago, Gasteiztik hurbil. Oraindik ez dira langile guztiak joan, baina laster hantxe izango dira energia saileko 16 langileak. Arrasateko ikerkuntza zentrua txiki geratu zaialako joan dira Arabara.

Iberdrola, MCC, EVE Taldea, Babcock Wilkcox, Sener eta Idom enpresek Energia Teknologien Euskal Fundazioa eratu zuten

1996an, Eusko Aldundiarekin bat erosi zuen an eta Ikerlanen katu du.

Gaur egun b... Lehenengoa gas... Ander Laresgo... honekin hotza... ekologikoago e...



HBko zinegotziak orain bi aste eskainitako prentsaurrean.

## Osoko bilkura trumoitsua

Astelehena hauteskunde bihar-ramona zen. Hala ere, goizeko 09:00etan, alkatea eta zinegotzi guztiak txintxo-txintxo agertu ziren udaletxeko bilkura aretoan. Aurrean bilera potoloa aurreikusten zen, jorrazteko 19 punturekin.

Hasi bezain laster, ordea, Xabier Zubizarretak HBren protesta azaldu zuen hainbat gairen inguruko diktamenak oso berandu jaso zituztelako, igandean bertan. Udal gobernuaren lan egiteko modua salatu zuen, sekretismoa eta ia

klandestinitatea leporatuz hiru-tariko gobernuari. Hori zela eta, beren aulkiak utzi eta osoko bilkura jendearen artean jarraitzea erabaki zuten.

Alkateak onartu egin zuen diktamen horiek berandu helarazi zitzaizkiela eta horregatik gai zerrendatik 11 puntu erretiratzea erabaki zuen, denek astia izan zezaten ondo aztertzeke. (Gai horiek ostiral honetan jorratuko dira, osoko bilkura berezian). Horrekin batera, gogorarazi zion Xabier Zubizarretari bere

garaian diktamenak oso berandu iristen zirela zinegotzien eskuetara. Alkatearen eskariz, Iñaki Txintxurretak berretsi egin zuen Loitik esandakoa. Xabier Zubizarretak, berriz, erantzun zuen esanez agian berandu iritsiko zirela diktamenak, baina bi edo hiru hilabete lehenago gaiak batzordeetan eztabaidatzen zirela eta zinegotzi guztiek zekitelara zer gai aztertu behar ziren.

Kontuak kontu, bost puntu baino ez ziren jorratu asteleheneko bilkuran. Hartu ziren erabakirik inportanteenak hauek izan ziren: udala agertzea Zaldispén bizi diren ijitoek Euskal Herriko Auzitegi Gorenean ezarri duten auzian, datorren urteko udal zergak %2,1 igotzea —IPCren igoe-bera alegia, salbu eta Iturbide Egoitzarena, %3,1ekoa izango dena—, eta, Bergarako Udalarekin batera, Gipuzkoako Botikarioen Elkargoak ezarritako errekurtsioan Osakidetzaren alde agertzea.

## Tito Percazen lanak Toledo Taldeari

Arrasateko Udalak Lasarteko Toledo Taldearen zerbitzu teknikoa kontratatu du, udal arkitektoari dagozkion lanen zati bat betetzeko. Oñandik zehazteke dauden asteko hiru egunean, talde honetako norbait Arrasateko udaletxean izango da lan hau burutzeko. Honela bada, talde honek duela astebate udaletxetik behin betiko kaleratu zuten Tito Percazek betetzen zituen hiri-gintza eta arkitektura lanetarikorikozko egingo ditu, harik eta arkitektu berria kontratatu arte.

Toledo Taldea ez da ezezaguna Mondragoeko udaletxean, izan ere, lehenago ere aritu izan da lanean udalarentzat. Gainera, inguruko beste herri batzuetan eta Mankomunitatean bertan ere egin izan du lan.

## Diru gehiago Eibar-Gasteiz autobiderako

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak datorren urterako Gipuzkoako aurrekontua erabaki zuen pasa den asteartean. Foru Aldundiak diru kopuru bat gorde du hainbat errepide egiteko.

Horrela, Etxegarate eta Eibar-Gasteiz autobideen lehenengo faserako aldundiak dagoeneko aurreratuta dituen 10.000 milioi pezeteki, 26.000 milioi gehituko zaizkie hurrengo lau urteotan.

Honela, bukatuta geldituko da lan hauen finantzaketa. 1999an bi proiektu horiek 5.500 milioi pezeta jasoko dituzte; aurreikusitako aurrekontua gaintuko dute.

## eraman dute

eta Arabako Foru fundazioak pabiloi teknologia parke horren erdia alo-

tan ari dira lanean. ikigailua litzateke. du zuenez, sistema zango dugu, modu goan:

Bigarren proiektua erregai zeluletan oinarritzen da. Ikerlanen elektra-indarra emateko erabiliko dute;

Miñaoko pabiloiaren ondoan esperimentuak egiteko egurrezko etxe bat erakitzten ari dira. Ikerlanek 400 milioiko inbertsioa egin du ikerketa zentru berri honetan eta guztira 1.200 metro karratuko espazioa dauka. Denak energiaren teknologia garbiagoak aurkitzeko erabiliko ditu.

## BERGARA


### 1 Borondatezkoak aztergai

Giza elkarteetan parte hartzen duten borondatezkoen esperientziei buruzko hitzaldia izan zen asteartean Miguel Altuna institutuan. Madrilgo Erkidegoko Hezkuntza eta Kultura Saileko gerontologoa den Gonzalez Berzosak eman zuen hitzaldia. Ekitaldi hau, Bergara eta Antzuolako erretiratuek egiten duten II. Hamabostaldiaren barnean sartu zen. Halaber, gai hau jorratzeko mahai ingurua izan zen ostegunean, institutuan bertan. Mahai inguru horretan talde hauek hartu zuten parte: Nagusilan, Bergarako Orfeoia, San Joxepe Bergarako Erretiratuen Elkarte eta Hiruatx Gobernuz Kanpoko Erakundea.

## ESKORIATZA

### 2 Unai Iñurrategi txapeldun

Unai Iñurrategi eskoriatzarrak munduko eskuz binakako txapelketa irabazi zuen larunbatean Mexikon. Berak finala jokatu ez zuen arren, bere kide Muruamendiaraz-Ruiz bikoteak 22-2 irabazi zien Mon-



talvo-Bruzain kubatarrei. Eskoriatza Kirol Elkarte eta Eskoriatzako Udala dagoeneko prestatzen ari dira egingo dioten omenaldia. Unai Iñurrategik 24 urte ditu eta txikitandik dabil pilotan etengabe lanean.

## ELGETA

### 3 Ilkasleen aisialdia

Herriko parrokiak antolatuta, sei urtetik hamar urtera bitarteko hurrek hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izan-

go dute larunbatetan. Hurrek euren trebetasunak landu ahal izango dituzte Iturbe patronatuak dauzkan tokietan begiraleek zainduta, beti ere aisialdia aprobetxatuz eta jokoen bitartez.

## ARETXABALETA

### 4 Barkero Lehen Mailan

Jose Javier Barkero aretxabaletarrek Lehen Mailako aurreneko partida jokatu zuen igandean. Barkerok 19 urte ditu eta Errealarekin jokatu zuen, Valladoliden kontra Anoetan izan zen norgehiagokan. Denboraldia hasi zenetik, bigarren mailako taldean zortzi partidatan zortzi gol sartu zituelako deitu zuen Kraussek igandean.

## ANTZUOLA

### 5 Pilotan ekin eta ekin

Asteburu honetan, herriko eskuz binakako txapelketaren bigarren saioa izango da pilotalekuan. Hamasei bikotek jokatu dute hemendik abendura bitartean. Hilabete horretan, finala eta finalerdia jokatuko dira. Pilotaxapelketa hau antolatzen den hirugarren aldia da.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# Madina Zurak, mende erdi zura lantzen

Gerra Zibilaren ondoren, Felipe Madina Bengoari aroztegi bat irekitzea bururatu zitzaion. Eta horixe bera egin zuen. Gaur egun bere abizena daraman aroztegiak bere horretan darrai. Hango arduraduna den Juan Pedro Mendizabalen hitzetan, zurarekin zerikusia duen edozein produktu saltzen dute, hala nola altzariak, atepak, zoruak eta oholak. Hala ere, saltzen duten egurra ez da beti landua izaten; landugabeko zur asko saltzen omen dute.

Pentsa daitekeenez, Madina Zurak ez da soilik biltegi bat, aroztegia ere baita. Juan Pedrok ziurtatzen duenez, Arrasate ingurua basoz beteta egoteak ez die bat ere eragiten, saltzen duten ia guztia atzerrikoa delako, eta, beraz, inportaziokoa.

Bertoko basoetan "pinus insignis" delakoa baino ez dute moztzen. Zuhaitz honen lehengaia ez bide da oso preziatua, eta, batez ere, papergintzan erabiltzen da. Era berean, Euskal Herriko haritza ez da erakargarria, eta Frantziatik nahiz Amerikatik



Madina Zurak, Bizkaia Etorbideko aroztegia.

ekartzen dituzte. Bestalde, Madina Zurak erosle tiporik ez duela ziurtatzen du Juan Pedrok. Izan ere, sexu eta adin guztietako erosleak dituzte: eskulanak egiteko oholak behar dituzten haurrak eta jende nagusia, etxe berria erosi behar duten bikote gazteak, etab.

Egur salerosketan gertatu ohi denez, azalera handiko denda da: Zarugalde kaleko

denda eta biltegi txikiari, Kanpanzarbidean dagoen 350m<sup>2</sup>ko aroztegi eta biltegi handia gehitu behar zaio. Guztira 550m<sup>2</sup>. Juan Pedroren iritziz, egun onak eta txarrak izaten dituzte: onak suertatzen dira eskatutako gauzak garaiz iristen direnean; txarrak, ostera, gauzak presaka egin behar direnean. Goiko biltegian diharduten langileek, berriz, aroztegiko eginbeharrak latzak

direla ziurtatzen dute.

Orain dela bi urte sute batek kixkali egin zuen biltegia. Ebanoa eta intxaurrendoa dira dendak eskaintzen dituen egurrik garestienak. Gereziondoak eta haritzak ere oso estimatuak dira, eta, jendearen ustearen kontra, eukalituaren zura ez da merkea. Euskal Herrian hain ezaguna egiten zaigun pinua salneurri baxukoa da.

**Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.**

**Udazkeneko moda gaztea jazteko, neurria ez da arazo izango.**

**Neurririk zabalenak ditugu.**

# Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 05 80**

## JAN ETA LO

Jubilatuak aspertu egiten direla? Bai, nik ere entzun izan dut hori, baina askotan dudatan ipini izan dut. Galdetu bestela "Porruaren Kofraixa" honi. Luis Villar, Luis Mendarozketa, Felix Lizurdia, Joxe Olea, Ignacio Baltzategi, Lucas Bergaretxe, Javier Salaberri eta hor, denon aurrean, Luis M. Uribetxeberria, sukaldari nagusia. Noizean behin elkartu eta porru-patata goxo-goxoak jaten dituzte.




## URTE ASKOTARAKO

Enaitzek bederatzir urte eta Amaiurrek zortzi bete dituzte hil honetan. Batak urriaren 11n eta besteak 21ean. Eta majo-majo daude, ezta? Zorionak gaztetxoak!

## MAITE, MAITE, MAITEA...

Berrogeita hamar urte dira Juan Guridi eta Nikolasa Madinabeitia ezagutu, maitemindu eta ezkondu zirela eta begira zein pozik dauden oraindik ere. Igeldon ospatu zuten eguna familiarrean eta primeran ibili ziren. Senitartekok zoriondu egin nahi dituzte horren goapo egotearren. Horrelaxe segi eta urte askotarako!



## NIK ERE NAHI DUT!

Txus eta Ana Jamaikan daude aizue! Zergatik? Ba ezkondu egin ziren hilaren 17an eta, ala, lehenengo Kubara eta gero Jamaikara! Inbidia duzuela? Ba, badakizue, ezkondu eta listo! Bi hauen ezkontzan, mutila bera arduratu zen animazioaz. Strep-tease saiakera eta guzti.

## ZUREKIN EDONORA

Maitasunak mugak gainditzen ditu. Argi dago esaera honek balio duela arrasatearrentzat ere. Ikusi bestela. Bederatzi ordu pasatu zituen autobusean Athleticeko Imanol taldeak Salamancara joateko euren taldea animatzera. Nahiz eta Athleticcek galdu, ezin esan animo faltagatik izan zela.



**KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 943 77 09 92  
Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 943 78 21 82  
OÑATI



- Janari prestatuak
- Artisau produktuak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Bokatak
- Bakailaoa

**Mitarte 10 • ARETXABALETA**  
Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82

# Nola jaten da ikasleak

**Inguruko ikastetxeetako haurrek ez dituzte batere gustuko barazkiak eta arraina. Arroza, spaghettiak eta oilaskoa, ordea, jakirik goxoenak iruditzen zaizkie. Amaren lapikoa nahiago dute aukeran, baina ikastetxeetako jangeletan ere ederki asko bazkaltzen dute.**

**A**lmen ikastolan Auzo Lagunetik ekartzen dute janaria. Hango sukaldaria den Mikel Igarzak esan digunez, "jateko gehiena aurrez prestatuta ekartzen dute Auzo Lagunetik. Dena den, zenbait gauza hemen prestatzen ditugu: arroza, solomoa..., haragia ere hemen erretzen dugu"

Almenen hamar lagunek dute 500 ikasle baino gehiagori jaten emateko ardura. Sukaldean bi sukaldari aritzen dira. Zerbitzariak, aldiz, lau dira. Plater garbigailuarekin ere beste bi langile ibiltzen dira eta mahaiak prestatzeko ardura beste batek du.

Almenen hiru txandatan antolatzen dute jatordua eta bi menuren artean atseginen dutena aukeratzeko modua ere badute. Aipatu menuak Auzo Lagunek berak prestatzen ditu.

Almeneko jantokira bisitan joan ginen egunean paella eta porru-patatak aukeran zituzten lehen platererako. Kantitateei buruz galdetzean, Mikel Igarzaren erantzunak argi asko erakutsi digu Almeneko irakasle eta ikasleak jatuak direla: "Puff! Gaur paella egiteko 20 kilo inguru arroz erabiliko genituen. Guk ez dugu arroza paketetan ekartzen, zakutan baizik. Porru-patatak egiteko, berriz, gutxi gorabehera 25 kilo patata erabiliko genituen".

## MUSAKOLA

Musakolako herri ikastetxeko ikasleetako batzuek DBHko ikastetxean bazkaltzen dute, Erguin eta San Andreseko ikastetxeetakoekin batera. 3 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleek bazkaltzen dute hantxe. Julia Monje Musakolako herri ikastetxeko zuzendariak adierazi digunez, "jangela hori iraila bukaeran hasi zen lanean. Hona ere Auzo Lagunetik ekartzen dute bazkaria. Gero bi pertsona arduratzen dira ikasleei jatekoa zerbitzatzeko, eta gure ikastetxeko haurrez arduratzen den beste pertsona bat ere badago". Egunero bazkaltzera gelditzen diren 12 ikasle dituzte, baina aste eta egun solteetako jatorduak egiten dituzten ikasleak ere badira. Bazkaltzeko txanda bakarra egiten dute momentuz, baina bi txanda egitea ere hasi dira pentsatzen. Julia Monjek dioen legez, "menu bakarra izaten dute DBHko jangelan, eta haurrak orokorrean gustura daude Auzo Lagunek eskainitako zerbitzuarekin. Beti egongo da prestatuta dagoe-na gustatzen ez zaionen bat edo beste, baina hori leku guztietan gertatuko da".

Janari kopurua antolatzeko, egunero ikastetxe bakoitzetik DBHko ikastetxera deitu behar izaten dute ikastetxe bakoitzetik joango den haur kopurua berri emanez, eta gero Auzo Lagunera deitzen dute.



La Merceden porru-patatak bazkaltzen harrapatu genituen ikasleak.



Ferixalekuan spaghettiak jan zituzten joan den asteartean.

# astetxeetan?



Almeneneko ikasleak iladan bazkaria hartzeko zain.

## LA MERCED

La Merced ikastetxean 1969ko uztailaren 7an zabaldu zuten jangela, ikastetxea bera sortu zenetik irekita baitago. Haur hezkuntzan dabiltzan urte eta erdira umeetatik hasita 16 urtera bitartekoak jaten dute hantxe. Auzo Lagun arduratzan da janaria ekartzeaz, eta termotan ekartzen dute guztia aurrez prestatuta. Beste ikastetxe gehienetan legez, hilabetero orritxo bat izaten dute La Mercedeko jangelako erabiltzaileek, eta bertan azaltzen da hilabete osoko menua. Lehen, ordea, hango lekameek prestatzen zuten janaria. Ehundik gora ziren lehenago La Mercedeko jangelaren erabiltzaileak. Gero-erajangelaren erabiltzaile kopu-

rua gutxituz joan dela esan digu Sor Maria Josefak, eta lekameek ez zuten bazkaria prestatzeko astirik izaten.

La Mercedeko jantokiko 50 ikasleek ez dute batere atsegin arraina eta berdura. Janaririk gustukoen artean, berriz, oilaskoa eta makarroiak dituzte. Dena den, Sor Maria Josefak esan bezala, "jaten ikas dezaten saiatzen gara, baina ez ditugu gogoz kontra jatera behartzen. Dena den, gustuko janaririk ez dutenean ez dira gosez gelditzen, azkar asko eskatzen baitidate: *Sor, ogi gehiago!* Eta guk nola despentsa beti bete izaten dugun, bada, nola edo hala asebetetzen ditugu". Bazkal ostean txikiak lo kuluxkatxoa egiten dute, eta gainontzekoak erre-

kreora joaten dira jostatzerara.

Arratsalde partean askaltzeko aukera ere izaten dute Mercedeko ikasleek, baina jatekoa mojen despentsatik ateratzen dute. Beatriz Ezeiza La Mercedeko irakasleak jakinarazi digunez, "bazkaria mojek prestatzen zutenean gusturago jaten zuten ikasleek, hauek oso sukaldari onak baitira. Orain ere bada Sor Ana Maria izeneko 82 urteko moja bat, eta txikiak oso mimatuak ditu, postre bereziak egiten baitizkie".

## FERIXALEKUA

San Frantzisko Xabier ikastolan, aurreko ikastetxeetan ez bezala, hango jangelan prestatzen dute bazkaria. 3 urtetik 16 urtera bitarteko 160

inguru ikasleek jaten dute hantxe. 12:30etan zabalitzen da jangela eta 13:45ak arte zabalik izaten da. Itsaso Aiastuik du sukaldearen ardura eta berak erabakitzen du egunero menua ere. Hilabeteko menua prestatzen du, eta goizean eramaten diete Arrasateko janari denda, arrandegi eta harategietatik gero prestatu beharreko janaria.

Sukaldariak mimo handiz gertatzen dute bazkaria; hala ere esan digu behintzat Txarro Pagaldaik: "hemen gertatutako guztia fresko-freskoa izaten da, eta umore handiz gertatzen dugu gainera, sarritan kantari aritzen baikara janaria prestatzen".

Ferixalekuan dituzte sukaldaria eta jangela. Beraz, Muskola eta Urribarriko zentruetako ikasleak ekartzeko autobus zerbitzua dute. Orain bederatzirte hasi ziren jangela zerbitzuarekin. Ramon Loiti jangela zerbitzuaren arduradunak esan digunez, "hasiera batean Urribarri zegoen jangela, baina Ferixalekuko hobekuntzak egin genituenean, hona ekarri genuen".

Jangelaren proiektua abian jarri zutenean, San Frantzisko Xabier ikastolako interesgarria iruditu zitzaizkien jangela zerbitzua ikastolak berak eramatea. Bi helburu nagusi zituzten hasiera batean: zerbitzua eskaintzea eta zerbitzu hori kalitatezkoa izatea. Bai bezeroak eta baita ikastola bera ere oso pozik daude eskaintzen duten zerbitzuarekin.

Maidor Osa

## Eurotik Eurora: hurrei euroaren nondik norakoak irakasteko

Ibai Arte Arrasateko Merkatarien Elkartek eta Txatxilipurdik hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrasateko umei zuzenduta. Ekitaldi hauek guztiak euroaren ingurukoak izango dira. Rosarito Zeziaga Ibai Arteko lehendakariak adierazi zuen moduan, ekitaldi hauen helburua da "euroaren inguruko kontuak ikastea eta euroa erabiltzen ohitzea, 2002. urteetik aurrera diru horrekin ibili behar garelako". Funtsen bi multzo nagusitan banatu dituzte ekitaldi hauek. Alde batetik, Eurotik Eurora jolasa eta bestetik Euro Galdeketa.

Eurotik Eurora jolasari joan den ostegunean eman zioten hasiera. Sebero Altube plazan aritu ziren umeak jolasean, euroa ardatz bezala hartuz. Aste honetan ere, aurrera egingo dute jolasekin. Egun larra egin duen egunetan Sebero Altube ondoko frantziskotarren tokietan egin da.



Haurrak Sebero Altube Plazan.

Euro Galdeketa, berriz, Arrasateko ikastetxe guztietan egindako galdeketa bat izango da funtsean. Galdeketa hau euroaren ingurukoa izango da, eta ikasleek emandako erantzun guztiak zozketa bat egingo da azaroaren 2an, ATBren albis-

tegiari. Galdeketa prestatu dute "hurrek galderak etxera eraman ditzaten eta gurasoekin batera lan ditzaten", Rosarito Zeziagaren hitzetan. Horretarako bi aste izan dituzte. Azkenean, parte hartu duten ume guztiak izango dute sariren bat.

## Euroa

### Euroa pezeta bezain erraza egingo zaigu erabiltzeko orduan?

Ez. Hasteko badago kontuan hartzeko gauza bat. Euskaldunok dagoeneko ez gaude ohituta zentimoak erabiltzen eta euroarekin berriz ere erabili beharko ditugu. Edozein dela 1998ko abenduaren 31n onartzen den trukea, hamarrenak agertuko dira, dezimalak alegia. Aurreikusita dagoenez, 1, 2, 5, 10, 20 eta 50 zentimoko txanponak egingo dira. Aditu zenbaitek kalkulatu duten moduan, euro batek 166 pta balio badu, ehun pezeta izango dira 0,602409638 euro. Argi dago, beraz, kopuruak biribildu beharko direla.



Euro baten balioa

167 PTA



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



# Zaldibar larunbatean hasiko da



Hilabeteko atzerapenarekin hasiko da Zaldibarko txapelketa.

Zaldibarko futbito txapelketa larunbatean hasiko da. 98-99 txapelketan 53 taldek eman dute izena. Iaz baino talde bat gutxiago, beraz. Dena den, Bonba Taldieko kideak pozik agertu dira eurek antolatzen duten lehenengo txapelketak izan duen harreragatik.

Asteburu honetan hasiko den txapelketak ere bi agertoki izango ditu. Larunbatean norgehiagokak Zaldibarren jokatu dira eta igandean, berriz, Iturripeko kantxetan. Horrez gainera, astero talde batek atsedena hartuko du. Lehenengo jardunaldian Bar Nuevo taldeari tokatu zaio ez jokatzeari, beraz hauek 2. jar-

dunaldian ekingo diote txapelketari.

## TALDE BERRIAK

Txapelketan arituko diren taldeen artean, zazpi izen berri daude: Saukelu scream, Serengeti HC, Txantxiku Kirolak, Construcciones Luso, Aita Menni 2010 eta You Know. Baina badira hauez gain, Zaldibarren estreinatzen diren beste talde batzuk ere: Lontxo Taberna, Rex 23 eta Balon Rojo. Hiru hauek orain arte Uribeko futbito txapelketan jokatu duten taldeak dira eta aurreko Zaldibarren ere arituko dira.

## Hurrengo partiduak

### urriak 31, larunbata

#### Zaldibar

09:50	Bukanak - Lontxo Taberna
11:00	Borroca & Rol - DBK
12:00	Construcciones Luso - Potroak
13:00	Insert Coin - Saukelu Scream
14:00	Los Heredia - Aurrera Bolie
15:00	Dribling - Decadencia
16:00	Rex 23 - Orlando Piratas
17:00	Zotz - Diego Antonio
18:00	Fraguel Gol - Sokoakoa
19:00	Ke Oxtiasx ! - Rotor Bolbogrado

#### Iturripe A

13:00	Naranja Mecanica - KKJauri
14:00	Euskal Presoak EH - Kamasutra
15:00	Balon Rojo - Alai Gozokiak
16:00	Aterpe Kafetegia - Txantxiku Kir.

17:00	Betrayer - Branka Taberna
18:00	Xhass Aldapa - Leya

#### Iturripe B

13:00	Lauterbrunnen - Potrosorri
14:00	Totem - Jako al rey
15:00	Pepelus - Aldibi
16:00	Irati Sts - Al Celaya
17:00	Aita Menni 2010 - Jotakabau
18:00	Makai - Ac Surkos

#### Azaroak 1, igandea

##### Zaldibar

09:50	Pub Arrogioi - Koka Juniors
11:00	Eusko Label - You Know
12:00	Serengeti - Komando Alpargat
13:00	Etxe Mbel - Garaje Oscar

**Atsedena:** D taldea: Bar Nuevo

### Hiru taldetan banatuko dira taldeak:

#### A TALDEA

Bukanak  
Lontxo taberna  
Insert Coin  
Saukelu Scream  
Rex 23  
Orlando Piratas  
Ke Oxtias !!!  
Rotor de Bolbogrado  
Balon Rojo  
Alai Gozokiak  
Xhass Aldapa  
Laya  
Pepelus  
Aldibi  
Makai  
AC Surkos  
Serengeti HC  
Komando Alpargat

#### B TALDEA

Borroca & Roll  
DKB  
Los Heredia  
Aurrera Bolie  
Etxemobel  
Garaje Oscar  
Naranja Mecanica  
KKJauri  
Aterpe Kafetegia  
Txantxiku Kirolak  
Lauterbrunnen  
Potrosorri  
Irati STS  
AT Celaya  
Pub Arrogioi  
Koka Juniors  
Zotz  
Diego Antonio

#### D TALDEA

Construcciones Luso  
Potroak  
Dribling  
Decadencia  
Fragel Gol  
Sokoakoa  
Euskal Presoak EH  
Kamasutra  
Betrayer  
Branka Taberna  
Totem  
Jako al Rey  
Aita Menni 2010  
Jotakabau  
Eusko Label  
You Know  
Bar Nuevo

Saioa Gimnasioko aerobic irakaslea

## JON ARANBARRI

*“Aerobica janari azkarra litzateke eta balleta euskal sukaldaritzaz berria”*

Mondragoetar honek ballet klasikoa utzi eta aerobic egiten hasi zen 1993an. Harrezkero hainbat maratoi eta aerobic txapelketatan aritu da. Gaur egun Saioa Gimnasioan eta Durangon ematen ditu aerobic saioak. Joan den larunbatean, Bergaran egin zen Euskal Herriko step gaineko lehen maratoiaren monitorea gisa aritu zen.

**— Euskal Herriko lehen maratokia izanda, jende asko aritu zen?**


— Step batzuk hutsik gelditu ziren. 300 laguntzako stepak jarri ziren, baina 225 izan ginen. Hala ere, jende asko dela uste dut, Euskal Herrian egiten den modalitate honetako lehen maratokia izateko. Nire ustez lehenengoa zelako gertatu da hori. Gainera, ez da gauza bera hiriburu batean edo herri batean egitea. Gasteizen ere izaten da beste bat *Avia* markak antolatutakoa eta han jende asko izaten da.

**— Lehen ere aritu zara aerobic maratoietan?**

— Orain dela bi urte izan nintzen Euskal Herriko aerobiton deritzon lehiaketan. Iaz Bergaran, Azpeitian, Elgoibarren, Durangon eta beste hainbat lekutan aritu nintzen.

**— Larunbatean bost begirale aritu zineten. Ezagutzen zenituen?**

— Mari Jose Corbella eta Giarztukoak ezagutzen nituen, baina larunbata arte eurekin aritu gabe nengo. Oso esperientzia polita izan zen, bakoitzak bere estiloa du eta hori somatu egin zen. Jendeak aukeratzeko parada izan zuen. David Pozo esaterako, Alacantetik etorri zenak, koreografia labur-laburra egin zuen, baina oso ondo aurkeztutakoa.



**— Gauza berririk ikusteko aukera izan zenuen?**

— Bai, dudarik gabe. Dena den, pausok beti berdinak direnez, aldatzen dena pausoen uztartzea da. Beti da interesgarria bestelako estiloak ikustea eta ezagutzea. Musiak ere asko egiten du eta larunbatean ere, hainbat estilorekin aritzeko aukera izan genuen.

**— Zein maratoiaren nahiko zenuke parte hartu?**

— Begirale ezagunekin aritzea gustatuko litzaidake, agian Bartzelonan edo beste hiri handi batean egiten diren maratoietan.

**— Aerobica kirol olimpikoa izango da?**

— Bai, laster bai. Bilkuretan eta horrelakoetan atzerritik ere etortzen dira irakasleak eta oso maila handia dago. Gainera, horrelakoetan lehia itzela izaten da. Jendea gogor aritzen da.

**— Zaila da jendeari aerobic egiten irakastea?**

— Hasten den talde bat beti izaten da motelagoa eritmoari dagokionez. Hasieran behintzat, kostatu egiten zaie musikarekin aritzean.


**— Lehen dantzaria eta orain aerobic irakaslea. Ez da aldaleta handia?**

— Dantza utzita nuen eta zerbait egin behar nuen sasoiaren egoteko. Baina bietan behar da indarra, teknika, samurtasuna... Konparazio baterako, aerobica janari azkarra litzateke eta balleta euskal sukaldaritzaz berria.

**— Zenbat ikasle?**

— Hemen hamabosteko hiru talde ditut. Durangon ere ematen ditut eskolak.

## FUTBOLA Bina Lazkaon



Preferenteko taldeak bina berdinak izan zuten Lazkaon. Neurketa istilutsua

izan zen erabat. Arbitroa izan zen protagonista. Hamabost txartel atera zituen eta bi aurkariak bederatzina jokalarirekin amaitu zuten. Aste honetan etxean arituko dira Oiarzunen aurka. Oiarzuarrak sailkapeneko 5. tokian daude eta Mondrakoek orain arte etxean izan dituzten emaitza txarrak kontuan izanik, partida polita izan daiteke igandekoa. Partida 15:45etan hasi da.

## SASKIBALOA Garaipena Iruñean



Arrasate Saskibaloia Taldeak garaipena eskuratu zuen Iruñean, San Cerninen aurka. Mondragoetarrak

galtzen hasi ziren, baina kontraerasora jokatu eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Larunbatean etxean arituko dira Jostaldi Kirolak azpeitiarren aurka, 19:15etan. Junior eta haur mailakoak Musakolan arituko dira, 11:00etan eta 17:00etan, hurrenez hurren.

## ESKUBALOA Garaipenaren zain



Arrasate Eskubaloia Taldeak ez du partidarik irabazi oraindik. Larunbatean Zumaian 32 eta 18

galdu zuten. Larunbatean Iturripen arituko dira UPV-EHU taldearekin 17:00etan. Haur eta gazte mailakoak, Zumarragara abiatuko dira.



# Bederatzi garaipen Usurbilen

Fin aritu ziren Saioa Karate Gimnasioko kirolariak larunbatean Usurbilen jokatu zuten Gipuzkoako promozio txapelketan. Guztira 225 lagun aritu ziren txapelketan. Arrasatek 22 lagun joan ziren. Txapelketa gerriko zuritik berdera eta urdinetik marroira bitarteko karatekentzat izan zen. 14 urtetik 35era bitarteko jendeak hartu zuen parte.

Arrasatearrek emaitza oso onak lortu zituzten txapelketan. Bederatzi lagunek lehen, bigarren eta hirugarren tokian gelditzea lortu zuten.

Katetan, gerriko zuritik berderako proban, Santiago Cantero 3. izan zen.

Urdinetik marroira, berriz, Patricia Morales eta Ivan



Saioa Karate Gimnasioko irabazleak.

Galan lehenak izan ziren.

Komite proban, Iker Zabartek eta Sandra Alvarezek lehenak izatea lortu zuten bakoitzak bere mailan. 70 kilo azpikoetan, Jorge Sanchez bigarren izan zen. Hirugarren tokia lortu zuten, bestalde, Andres Canterok, Alaitz Aranburuzabalak eta Jabier Baenak.

Karatekaren bat aipatzekotan, Ivan Galan azpimarratu behar dugu. Bera baino helduagoak ziren karatekin aritu zen katetan, eta 14 urterekin lehenengoa izatea lortu zuen.

Taldea oso ondo aritu zen eta kalitate tekniko ona erakutsi zuen. Ziur aurten ere, denboraldi bikaina egiten dutela Saioakoek.

## Mondragoetarrak Gipuzkoako xake ligan

San Andres Xake Taldeak larunbatean hasi zuen Gipuzkoako Xake Liga. Arrasatearrek preferente mailan arituko dira, Gipuzkoako mailarik altuenean, hain zuzen ere. Liga horretan hamalau talde arituko dira. San Andresko taldea, Jose Manuel Hernandok, Josu Tornayk (bartzelonarra), Luis Angel Ortegak (lasartearra), Arriaranek, Vallinak eta Isidro Ruizek (kantabriarra) osatuko dute. Dena den, titular bezala Villar, Tornay, Ortega eta Ruiz arituko dira.

Joan den larunbatean jokatu zuten ligako lehenengo norgehiagoka arrasatearrek. Hala ere, ezin esan ondo hasi zuten liga. Aurrez aurre Aretxabaletako laukotea izan zuten eta lau partidak galdu zituzten.

Larunbatean aukera izango dute emaitza txar horie



buelta emateko. Andoaingo Leitza taldearen aurka arituko dira. Mondragoe-

tarrak baikor agertu dira garaipena lortzeko aukera asko dituztela eta.

## Behobia-Donostia lasterketa

Herriko 40 lasterkari arituko dira aurtengo Behobia-Donostia oinezko lasterketan. Azaroaren 8an, igandea, egingo den lasterketa klasiko honek 80 lagunek eman dute izena Loramendi Kirolak dendan. Hori asteazkenean, eta izen ematea ostiralean amaitzen zenez, besteren bat ere ghituko zela baieztatu ziguten dendakoek. Dena den, iaz baino gutxiago izan dira, orduan 131 lagunek eman baitzuten izena.

XXXIV. edizioa izango da aurtengoa eta goizeko 11:00etan emango zaio hasiera. Ordu horretan aterako dira dortsal berezia dutenak, hau da, ordu batetik beherako lasterketan arituko direnak. Dortsal zuridunak, berriz, 11:02etan aterako dira.

**MAITE ITURBE** (ETB-KO PRODUKZIO KOORDINATZAILEA )

# “Audienzia kontuak oso

**1959ko San Fermin egunean jaio zen Maite Iturbe. Arrasatearra sortzez, ekonomilaria da izatez. Ikasketak Oñatiko Eteon hasi eta Sarrikon bukatu zituen. Gehienok ETBko teknikari moduan ezagutzen badugu ere, komunikabideen esparruan sartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean ibili zen. ETBn ere ibilbide luzea egin du, gaur egun dagoen lekura iritsi arte: haur saioetan, kirol programetan..., azkenean barne produkzioaren koordinatzailea izendatu zuten arte.**

**— Zein da koordinatzaile baten lana?**

— ETBk egiten dituen saio guztien produkzioa koordinatu eta antolatzea da nire lana; batez ere aurrekontua kontrolatu beharra daukat. Hau guztia egutegi jakin baten barnean egin beharra dago.

**— Zein irizpide erabiltzen dira ETBn programak aukeratzeko orduan?**

— Bi alde begiratzen dira. Batetik, ea edukien aldetik programazioaren helburuak betetzen dituen; eta bestetik, eta hauxe da nire lana, baloratu egin behar izaten dut programa horrek behar dituen bitartekoen arabera, posible litzatekeen gure etxean egitea edo gure aurrekontuaren barnean sartzea.

ETB 1ean, programa ikuskizunak aukeratzeko dira, ikusgarriak. Hizkuntza aldetik, arina izan behar da. Hau da, ulertteraza, ahalik eta jende gehienak ikus dezan. ETB2an parte hartzea eta entretenigarritasuna bilatzen dira. Audienzia eta gertutasuna izatea bilatzen da aukeraketa egiteko orduan.

**— Lan asko egiten duzue kanpoko produkzio etxeekin. Zein motatako produktuak bidaltzen dituzte ETBra?**

— Oraintxe

bertan, eguneroko egoerak kontatzen dituzten komediak ditugu puri-purian. Dokumentalak ere jasotzen ditugu. Lehiaketak betidanik egon dira. Magazinak, hau da piska bat denetik

daukaten saioak, elkarrizketak... Magazinen kasuan, beste kazetaritza mota bat ikusten hasi gara: kaleko kazetaritza ausarta, laguntzaile bitxiak sartzen dituzte. Hau da datorren moda, gutxi gorabehera.

**— Zer da zailagoa, ETB1erako edo ETB2rako lan egitea?**

— Lana egitea ez, baina helburuak lortzea zailagoa da ETB1erako. Programa gutxiago daude aukeratzeko. Gainera, profesionaltasun maila



**“Lan egitea ez, baina helburuak lortzea zailagoa da ETB1erako, ETB2rako baino”**

# “misteriotsuak izaten dira”

altua behar da ETB1erako programa bat egiteko, zeren eta Euskal Herrian euskaraz hitz egiten dugunak %30 izanik, zailagoa da. Magazine batean, adibidez, famaturen bat ekarri nahi izanez gero, derri gorrez euskara jakin behar du, eta honek asko mugatzen gaitu. Lehiaketa batera doazen lehiakideekin ere berdin gertatzen da. Gainera, kanpoko produkzio etxeek ETB2rako produktu asko bidaltzen dituzte.

— Ez duzu uste ETB1ean programak asko errepikatzen direla?

— Hasieran, arratsaldeko

programazioa eten egiten genuen ordu batzuetan. Programak errepikatzea tontakerrira zela uste genuen orduan. Baina, audientzia izugarri jaitsi zen. Egia da errepikatzen dugula, baina ordu pila bat emititu behar dugu, aurrekontua ez da guztirako heltzen eta azkenean frogatuta dago egokiagoa dela programak errepikatzea programazioa etetea baino. Gainera, behin baino gehiagotan programa bat errepikatzean audientzia gehiago lortu izan dugu, jendeari ezagunago egiten zaio-lako edo.

— Hainbesteko ardura eskatzen duen lan honekin estresatuta biziko zara?

— Beno, ez da erraza. Kezka izaten ditut, batez ere aurrekontuarekin. Gainera, audientziak zer nahi duen agintzen du etxe honetan. Beraz, azken momentua arte ezin dugu jakin egin dugun lanak zenbaterainoko balio duen. Dena dela, programarekin asmatzen dugunean, benetan pozik sentitzen naiz.

— Zaila da jendearen gustuarekin asmatzea?

— Nahiko zaila. Behin baino gehiagotan gertatu da bi

programa desberdinetan formula berdina edo oso antzekoa erabiltzea eta bata sekulako arrakasta izatea eta bestearekin asmatu ezinda ibiltzea. Halako zerbait gertatu zitzaigun Goenkalerekin, adibidez. Guk espero baino askoz ere harrera hobea izan du dudarik gabe. Adituek diote arrazoia dela euskara ulerterraza erabiltzen duela. Euskaldun zaharrei samurrago egiten zaie euskarazko telesail hau ikustea eta euskaldun berri askok ulertu egiten dute eta gustura ikusten dute. Dena den, audientzia kontuak oso misteriotsuak izaten dira. ■



HAURREN AHOTSA unicef

## Azaroak 21

Zure seme-alabek zeregin garrantzitsua izango dute.



### 1 □ Nortasuna

Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinesmen eta tradizioen arabera bizitzekoa.



### 5 □ Jolasa

Jolasteko denbora, lekuak eta jolaskideak izateko eskubidea.



### 9 □ Ongizatea

Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar besteko baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.

**2 □ Familia**  
Maite eta orientatzen nauen familian bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta haiengandik bereiztua ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada behintzat.



**6 □ Berdintasuna**  
Diskriminatua ez izatekoa, eskubidea eta trataera eta atentzio bereziak jasotzekoa, behar izanez gero.



**10 □ Bakarra**  
Indarkeriarik gabeko gizarte baktetsu batean bizitzeko eskubidea, elkartzasuna, tolerantzia eta adiskidetasuneko izpiritu batean hezitzekoa.



### 3 □ Osasuna

Zainketa medikuak izateko eta bizitza-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetatik libre eta kutsatu gabeko leku atsegin batean bizitzekoa.



### 7 □ Babesa

Nire gorputza eta nire sentimenduak mindu ez diezazkizaten eskubidea, tratatu txarrik, laidorik, edota sexu-abusurik ez izatekoa, zapaldua ez izatekoa.



### 11 □ Haurrak aurretik

Erabakiak haurren premietan oinarrituta har daitezten eskubidea.

**4 □ Hezkuntza**  
Bestekin batera bizitzen ikasteko eta hobea izateko hezkuntzarako eskubidea, zoriotsu naizen eta ikasteko gogoaz joaten naizen eskola bat izatekoa.



**8 □ Parte hartzea**  
Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzekoa, eta nire iritzia aintzat hartuak izan daitezten.



**12 □ Elkartzasuna**  
Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.



Haurrek beren eskubideak aukeratuko dituzte. **Bozkatu!**



# “Bai Euskarari!”

## hitza emanez euskarari



Arrasateko Bai Euskarari Batzardea.

Bai Euskarari kanpaina Euskararen Erakundeentzako Kontseiluak bultzatzen du. Orain hogei urte lelo bera erabili zuen beste kanpaina bat egin zen. Orduko ilusioa berreskuratu nahian egin da oraingo kanpaina hau, baina ekintza berriak bultzatuz.

Euskararen Erakundeentzako Kontseilua herri ekimenetik sortutako eta euskara helburutzat duten gizarte erakundeentzako kontseilua da. 1996an sortu zen. Kontseilu honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, euskararen inguruan lanean diharduten taldeak hezurramitu eta elkarlanean jarri. Bestetik, gizarte hitzarmen zabalak erdietsi, Euskara Erakundeentzako Kontseilu barnean dau-

den taldeen kezka soilik izan beharrean, gizarte osora ere zabal dadin.

### EUSKALGINTZAN

Kontseilu honek Euskal Herrian euskalgintzako erreferente nagusia izan nahi du eta Jasone Mendizabal AED-ko idazkari orokorrak dioenez, “bere baitan 54 elkarte, 100.000 bazkide eta gutxi gorabehera 5.000 langile inguru biltzen ditu. Horretaz gain, urtero 50.000 milioi pezeta mugitzen ditu. Beraz, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula”.

Gizarte Erakundeentzako Kontseilua oso talde ezberdinek osatzen dute: euskara elkar-teak, ikastolak, euskaltegie-

tako irakasle elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak, Elhuyar, Euskaldunon Egunkaria...

### UDAZKENEKO KANPAINA

Bai Euskarari kanpaina udazkeneko egitasmo zehatz bat izango da. Egitasmo nazionala da, Euskal Herri osora zabalduko dena, alegia. Hiru ardatz nagusi izango ditu kanpainak: nazio mailako eragile sozial handiengana jotzea beren atxikimendua lortuz. Honen bidez euskararen normalizazio prozesua bizkortu nahi da. Honez gain, herri mailako euskalgintzako eragileak bildu eta batzardeak sortuko dira. Beraz, nazio mailako kontseilu horretaz gain, herrietan

ere sortuko da beste hainbat talde egitasmo hau aurrera eramanez dadin. Honela, Arrasaten ere sortu da “Arrasateko Bai Euskarari Batzardea”.

Kontseiluaren bigarren ardatza jende asko bilduko duen ekitaldi bat antolatzea litzateke, abenduaren 26an Euskal Herriko bost futbol zelaitan antolatuko dena.

Azkenik, aurrera begira eragile sozialen eta gizartearen onospena eta euskararen alde normalizazioa azkartzeko plangintza orokorra egitea da beste helburu bat. Hori egiteko dirua lortu beharko da, eta finantzaketarako “lan ordu bat euskarari” izeneko kanpaina ere abian jarriko da.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL, IDAZLEA

## Samurai Berria espioitza eleberria idatzi berri du

Josemari Velez de Mendizabal Aramaion jaio zen, gaur egun Arrasaten bizi den arren. Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziatua, dagoeneko 15 liburu eta 700 artikulua baino gehiago idatzi ditu. Arrasateko Unión Cerrajera lantegian aritu zen lanean eta Euskal Idazleen Elkarteko sortzaileetako ere izan zen. Elkarteko lehendakari ere aukeratu zuten. Eusko Jauriaritzako Kultura sailburuordea ere izana da. 1994tik aurrera Eusko Ikaskuntzako gerentea da, baina "Samurai Berria" bere azken eleberria idazteko ere hartu du astia.

### — Nolatan hasi zinen idazten?


— Seguraski betidanik izan dut nire barnean idazteko grina eta ofizioz ekonomista naizen arren, idazletzat har daitekeen zerbait ere badut afizioz.

### — Zer iradoki nahi izan diozu irakurleari "Samurai Berria" eleberriaren bidez?

— Liburu hau aurretik egindako beste biren jarraipena da. Trilogia honetako lehen liburua idatzi nuenean, "Yehuda" hain zuzen ere, txiripaz irten zitzaidala esan daiteke. Makinaz idaztetik ordenagailuz idaztera pasatu behar izan nuen, eta nire buruari erronka hori jarri nion. Piskanaka, hasierako bi orriak liburu bihurtu nituen.

### — Zer da kontagai nagusia "Yehudan"?

— Garai hartan Zerrajeran egiten nuen lan, eta asko bidaiatzen nuen, eta salerosketa askoren lekuko izan nintzenez, esperientzia horiek guztiak islatu nahi izan nituen. Idazkiari pertsona berezi bat gehitu nion, Kosme Zubia izenaz bataiatu nuena, eta huraxe



bilakatu zen nire itzala. Hark nolabaiteko logika ematen zien aurretik islatutako kontaera guztiari.

### — "Moskuko Gereziak" liburuan ere ildo beretik jarraitu zenuen?

— Bai. Moskura bidaiak egin behar izatea suertatu zitzaidan, eta Georgian mafiarekin egin nuen topo. Mundu ilun hura islatu nahi izan nuen orduan. Kosme Zubia izan zen hainbat gertaeraren inguruko lotura logikoa orduan ere.

### — Azken liburuan ere bidaiak dira ardatz?

— Lanez aldatu nuenez, bidaiak fisikoak beharrean, bidaiak birtualak egin ditut, internauta bilakatu bainintzen nire lana zela eta. Dena den, aurreko bi eleberrietan bezala izkutuko mundua edo espioitza arloa du oinarri honek ere.

### — Etorkizunerako proiekturik?

— Orain arte idatzitako artikulua guztien bilduma izango den liburua argitaratuko dut seguruenik Arabako Diputazioaren eskutik. Bestalde, Gerra Zibilaren aurretiko Mondragoeko bizimodua azalduko lukeen beste liburu bat ere idatzi nahiko nuke.

## aste gazte

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• BBK eta Bilboko Arte Ederretako Museoa eman da, ikerketa artistikoak egiteko dirulaguntzak. Epea: abenduak 1.

### ■ LANA

• Berriozargo Udalako euskara teknikaria behar da. Epea: azaroak 4.

• Berriozargo Udalak, emakumei argibideak eta aholkularitza emateko begirale bat behar du. Epea: azaroak 9.

• Debako liburutegirako, liburutzaingain bat behar da. Epea: azaroak 9.

• Gipuzkoako Diputazioaren Uliazpi Fundazioak, gizarte laguntzaile edo gizarte langilea behar du. Epea: azaroak 12.

• Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatean, bi euskara teknikari lanpostu bete nahi dira. Epea: azaroak 23.

### ■ LEHIAKETAK

• Juantxu Rodriguez argazki lehiaketa, Portugaleteko Margen taldeak antolatua. Argazkiak, gai librean. Epea: azaroak 13.

• Eibarko Udalak, XIV. Gazte ipuin lehiaketa antolatu du, 14-17 eta 18-25 urte artekoiei zuzendua. Epea: azaroak 20.

• Eibarko Udalak bultzatuta, aukera berdintsuna eta feminismoarekin lotuta, historikoki garrantzitsuak izan diren emakumeen edo haien jardurerarekin zerikusia duten izenak eraikin, kale edo plaza ipintzeko ideia lehiaketa. Epea: azaroak 27.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Liburu hau aurretik egindako beste biren  
—Yehuda eta Moskuko Gereziak— jarraipena da”



leseko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 919 54 64 64.

• Eskola partikularrak ematen ditut, euskaraz zein gaztelaniaz, prezio onean. Tel.: 943 79 79 35. Asier.

• Arrasateko AEK-Erdu euskaltegian alfabetatze ikastaroak ematen dira, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara. Izena emateko deitu 943 77 03 69 telefonora edo euskaltegira jo. (Garibai Etorbidea, 14 - "Sindikatuaren etxea").

## 21. Eskaerak

• Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

• Eskolak hartuko nituzke gai haue- tan: programazioa, sistema eragile- ak eta sareak. Tel.: 945 44 51 66.

• Ekonomia alorreko matematika iraka- sle bat behar dut, Batxilergo LOG- SE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

• Eskolak hartuko nituzke ondoren- go gaietan: Sistema eragileak; pro- gramazioa eta sareak. Tel.: 945 44 51 56.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urte- koa. 140 cv. Zuria. VI-L matrikuladu- na. Egoera onean. 120.000km. Pre- zioa: 850.000 pta. Tel.: 945 28 93 07. Alberto.

• Peugeot 205 XR 3 ateduna salgai. Gris iluna metaldun kolorekoa. Ego- era onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 02 28.

• Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Kolo- re beltzekoa. SS - V. Tel.: 943 64 39 14.

• Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94 urtekoa. Berri antza. maleta bat eta bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63 79.

• Ford Scort XR3 (SS-C) salgai, pre- zio onean. Tel.: 943 71 44 45.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Autorako irratikaseta salgai. MX Onda 25wx4 - Dolby - MS Loudness

- BSM - MTL - Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 60 81.

• Hamar Kardon V1x625 300 w poten- tziakoa. Musika talde batentzako aproposa. 100.000 pta., negozioa- garriak. Tel.: 945 22 34 35 (Julian).

• Zimmerman pianoa salgai. Egoe- ra onean. Tel.: 943 79 48 10.

• Trikitixa salgai. Tel.: 943 77 04 50.

• Bigarren eskuko akordeoi kroma- tikoak erosi nahiko nuke. Pignini edo Borsini markakoa. Tel.: 943 79 98 07.

• Windsurfing-eko ohola salgai. Bic Presto 2,80m. 120litro. Egoera oso onean. 45.000pta. Tel: 943794347, e-mail: aritzmurgia@globalnet.es

• Pentium 133dun salgai. Giga bate- ko disko gogorra. 15 pulgadatakoa monitorea. Inprimagailua. Windows 98. 32 mega RAM. CD Rom. 100 wko bozgoragailuak. Office 97. Tel.: 943 78 14 72.

• Sonola Markadun akordeoia sal- gai. 120 beheak, 4 abotsak eta Baseti. Tel.: 943 78 14 72.

• Bi oheko logela osoa salgai oso- omerke. Tel.: 943 79 89 0731

## 31. Galdu

• Urrezko lauburu eta zintzilikarioa, eta Errealaren txandalaren goiko zatia galdu genituen joan den ostiralean. Aurkituz gero, arren, eskertuko geni- zueke jakinaraztea. Tel.: 943 79 71 34 (arratsaldeko 20:30etatik aurre- ra).

• Pasa den ostiralean argazki album txikia galdu genuen Mikel Lasa ase- guru etxearen eskaileretan. Aurkituz gero, deitu mesedez telefono hone- tara: 943 79 90 91 (Nerea).

## 32. Aurkitu

• Maritxu gauean betaurreko graduatu batzuk aurkitu genituen. Galdetu Jai Zale tabernan.

• Ordularia agertu da Sokoa taber- nan. Real Madridekoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).

## 33. Bestelakoak

• Perkusio lantegia. Hastapen eta sakontze mailak. Hainbat erritmo: afri- karrak, arabiarak, hegoamerikarrak, rock&rolla... Astelehenean, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, Gazteluondoko ikastolan. Izen ema- teko eta berri gehiagorako, Gazte Bule- gora jo. Tel.: 943 77 00 65.

• *Karta eta eguneroko menuak*

• *Bakailaoan espezializatuak*



**Zubaitz**

J A T E T X E A



*Berriz ere zabalik!!*

*Astelehenean itxita*

Rosario, 4 LEINTZ-GATZAGA Tel.: 943 71 54 94



**ARKO**

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARKOren 99ko Gida Komertziala prestatzen ari gara dagoeneko.


Aurten, Kike Dapena eta Oihana Jausoro izango dituzu bisitari zure tabernan, dendan edo lantegian komertzial lanak egiten.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako merkatarien telefonoak jasoko dira Gida 99an.

ARKOren gidan azaldu nahi baduzu edo berri gehiago jaso nahi izanez gero, deitu ARKOra ( 943 77 08 15).

Gida 99, zure lana errazteko.

# Gida 99



**Arrasate Press**  
**ATB - Arrasate Telebista**

**ARKO (Arrasate Komunikabideak)**

Gida 98

Gida 98




# Yemen, Jon Ruiz de Zarate eta Josemari Velez de Mendizabal ATBn

Datorren asterako ere programazio borobila prestatu du ATBk.

**ASTEAREN YEMEN ATBn**  
Asteartean Yemengo kontuak ekarriko dizkigute Gari-koitz Kortazarrek eta bere saioko gonbidatuak. Beraz, urrutiko kontu, kultura eta bizikerak izango dituzte kontakizun nagusi bidaiatzea eta urrutiko lekuak ezagutzea gustuko duten guztientzat. Hori guztia, noski, ATBko pantaila iluntzeko 21:30etan piztuz.

Asteazkenean, berriz, *Aurrez Aurre* saioa izango da Karmele Zuazubizkarren eskutik, albistegiaren jardunaren ostean.

**KALEIDOSKOPIOA**  
Ostegunean Jon Ruiz de Zarat



Yemen izango da hizpide "Munduari bueltaka" saioan

te argazkilari arrasatearra eta Josemari Velez de Mendizabal etorriko dira Aitziber Langaran eta Unai Iparragirrek aurkezten duten *Kaleidoskopia* saiora.

Jon Ruiz de Zaratek aspal-

didanik dihardu argazkigintzan, eta oraintsu "Serrajería" izeneko argazki multzoarekin ere egin ditu hainbat erakusketa Arrasaten.

Jose Mari Velez de Mendizabalek, osterara, "Samurai

Berria" bere azken espioitza eleberria kaleratu berri du. Biek hala biek izango dute zer kontatua, seguru aski.

*Kaleidoskopia* saioaren ostean, *Soinuz Blai* hartuko du txanda. Gaueko 22:00etan, beraz, musikazale guztiek ATBn izango dute hitzordua, Edu Abasoloren musika eskaintzarekin gozatu nahi badute behintzat.

Larunbat eta igande eguerdian aurreko astean zehar ikusentzungai izan diren saiorik interesgarrienak errepikatuko dira. Astelehenean, berriz, albiste aurrerapenaren ondoren, aurreko ostiralean eskainitako *Astebete* saioa izango da ikusgai. Berrien ondoren, asteburuan izandako kirol jardunaldien berri emango du Itxaro Zubillaga aretxabaletarrak.

## ■ ATBren programazioa

### LARUNBATA, 31

13:30 **Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Musiklasik, Mahai ingurua, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

### IGANDEA, 1

13:30 **Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Musiklasik, Mahai ingurua, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

### ASTELEHENA, 2

13:30 **Albiste aurrerapena**  
Zigor Txurrukak aurkeztuta.  
13:35 **Astebete** (Errepika).  
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**



### ASTEARTEA, 3

13:30 **Albiste aurrerapena.**  
13:35 **Mondrasport** (Errepika).  
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
21:30 **Munduari Buelbaka.**  
Yemen izango dute hizpide.




### ASTEAZKENA, 4

13:30 **Albiste aurrerapena.**  
13:35 **Munduari Buelbaka** (Errepika).  
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
21:30 **Aurrez Aurre**  
Karmele Zuazubizkarrekin



### OSTEGUNA, 5

13:30 **Albiste aurrerapena.**  
13:35 **Aurrez Aurre.** (Errepika).  
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
21:30 **Kaleidoskopia.**  
Jon Ruiz de Zarate eta Josemari Velez de Mendizabal izango dira saioko gonbidatuak.  
22:00 **Soinuz Blai.**



### OSTIRALA, 6

13:30 **Albiste aurrerapena.**  
13:35 **Kaleidoskopia.** (Errepika).  
20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
21:30 **Astebete.**  
22:00 **Soinuz Blai.** (Errepika).





**E**z konduak ezkongabeen kontra. San Isidroetako futbol partida interesgarria izaten zen, beti ere jaien

hirugarren egunean. Argazkiko hau 1954an jokatu zen, Iturripen.


Hona hemen urte hartako ezkongabeen taldea. Zutik, ezkerretik hasita, Manolo

Uranga, Iñaki Orue, Esteban Biteri, Jesus M<sup>a</sup> Iriarte, Zufiria, Pedro Mari Arregi.

Makurturik, Luis Zufiria, Gregorio Beitia, Juan Manuel Ugarte, Vitorino Alonso eta

Agustin Beitia.

-----  
*Berriemailea: Manuel San Vicente Zurdito*

**Etxe Aundi**  
*Hotela\*\**  *Jatetxea*



*Gaur ez bada, bihar ezkonduko zara ... Etxe Aundin zure zain gaituzu.*

**Ospatu zeure ezkontza Etxe Aundi jatetxean (250 lagunentzako aretoak)**

*Kontsulta itzazu 1998rako menu berriak, ezkontzako opari batekin txundituko zaitugu*

Torreauzo, 9 • OÑATI  
Tel.: 943 78 19 56 • Faxa: 943 78 32 90



# Oihana

LORADENDA - APAINKETA

**Eskerrik beroenak  
eskainitako  
konfiantzagatik**

Arrasate Pasealekua, 8  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 14 56



## SAIOA GIMNASIOA

### BERRIKUNTZA ARRASATEN

Umeentzako aerobic-a!

**Aerobic programa:**

- High-Low Impact
- Funky
- Salsa
- Step
- Tonifikazioa

**Aerobic mailak**

- Umeentzako aerobic-a
- Hasiberrientzako aerobic-a
- Aurreratuentzako aerobic-a

Astelehenetik ostiralera,  
goizez eta arratsaldez

Kontzezino, z/g, tunela  
(Arrasate Kirolak-en atzealdean)  
ARRASATE • Tel.: 943 79 97 31



**Irakasleak:**

- Beatriz Rubio
- Jon Aranbarri
- Izar Gomez
- Nerea Mata

Orain, gainera, aerobic egiteko lurzoru berezia jarri dugu.

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate  
bihurtzen diren  
ilusioak

